255. zk.
Bigarren aroa
Ekainak 15
2015

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

## Erreportajeak

Botafuego bidea, gero eta arrakastatsuagoa.

## Elkarrizketa

Carla Pavesi, Alarde Publikoko Danborradaren kantinera.

www.irunero.com
Sar zaitez web orrian eta Facebooken

# Irunero

**Erredakzioa :**
Joseba Arozena eta
Unai Oiartzun

**Euskara zuzentzailea:**
Xabier Kerexeta

**Publizitatea:**
Ion Otxoa
Sonia Garcia Olazabal,
Amaia Terrazas

sgarcia@baseclick.es
**Argitaratzailea:**
Baseclick S.L.

**ISSN:** 1134-0606

**Lege gordailua:**
SS-230-94.

Maiatzaren Lehena,
23 - 20304 IRUN
Tel: 693 82 80 99

www.irunero.com



MATRIKULA DOHAINIK

DANZA TATIANA

UDAN ERE, ASTINDU GORPUTZA!!!
Multi-Gym, Pilates, Sevillanak eta latindar erritmoak
TAILERRAK:
Defentsa pertsonala, makillajea, saltsa eta bachata

Deitu 943 61 48 89
edo idatzi tatianas@euskalnet.net

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

# “San Martzial mendiko desfilea liluragarria da”

Juan Carlos Errazquin, Alarde Tradizionaleko Hatxeroen idazkaria

Hamar urte bete ditu Juan Carlos Errazquinek Alarde Tradizionaleko Hatxeroen idazkari lanean. Hamarkada osoko esperientziaren ondoren, ondo ezagutzen ditu haien bitxikeriak eta pasadizoak. Konpainia berezia da Hatxeroena. Ez du musikarik, ez du kantinerarik, eta baldintza zorrotzak bete behar ditu parte hartu nahi duenak.

**- Zein baldintza bete behar du hatxero izan nahi duenak?**

Barne araudiaren arabera, ondorengo baldintzak bete behar ditu: Irunen jaioa edo hamabost urtez Irunen erroldatua izatea, 21 urte edukitzea, 1,'87 m luze izatea, eta ageriko urritasun fisikorik ez edukitzea. Urteroko Ohiko Batzarrean egin daiteke izen ematea, sanmartzialen aurreko azken larunbatean.

**- Gutxieneko altuera gero eta gehiago igo izan duzue. Zergatik?**

Ulertu behar da Hatxeroen taldean parte hartzea mugatua izan behar dela. Kaboa eta berrogeita hamabost lagun besterik ez dira ateratzen. Gainera, gaur egun, bataz besteko altuera gero eta handiagoa da.

“%30eko errotazioa egiten dugu urtero”

**- Errotazio sistema duzue. Zein da bere funtzionamendua?**

1984ean planteatu genuen gaia, ordura arte titularrak baizik ez baitziren ateratzen. Bozketan, gehiengo absolutuarekin irabazi zuen errotazioen aukerak. Gaur egun, %30eko errotazioa egiten dugu urtero. Sistema konplexua da, baina informatikari esker ez dago inolako arazorik.

**- Ordezkoek hatxero jantzita joan behar izaten dute arrankadara, badaezpada.**

Lau izaten dira, eta zerrenda pasatzeko momentuan egon behar izaten dute Urdanibia plazan, Alardea irten baino ordu erdi lehenago. Zerrenda pasatzerakoan titularren bat falta baldin bada, ordezkoak hartzen du bere lekua. Minutu bat berandu iristen baldin bada ere, titularrak urte horretan eskopeta hartu beharko du desfilatzeko. Puntualtasuna ezinbesteko baldintza da.

**- Deigarria da hatxeroek bihurguneak nola hartzen dituzten.**

$90^0$ birak egiten ditugu. Ez da erraza, baina ondo azaltzen dugu prozedura, bideoak erakusten ditugu, eta entsegu txikiak ere egiten ditugu horretarako. Nik uste, nahiko ondo ateratzen dira.

**- San Martzial eguneko zein momentu duzu gogokoen?**

Goizeko arrankada da horietako bat, jakina. Hala ere, baditut gehiago. San Martzial mendiko desfilea liluragarria da niretzat. Arratsaldeko arrankada ere ikaragarria da. Milaka pertsona izaten dira Urdanibia plazaren inguruetan, hizketan, eta edaten. Nik beti pentsatzen dut ezinezkoa dela anabasa horretatik ezer onik ateratzea. Baina ateratzen da. Bukatzeko, Kale Nagusia festaren amaierako eztanda da.

“Zerrenda pasatzerakoan titularren bat falta baldin bada, ordezkoak hartzen du bere lekua”

# Arku koloretsua, egunari amaiera emateko

Alardearen inguruan badira, oraindik, jende askorentzat ezezagun diren ekimenak. Botafuego bidea da horietako bat. Alarde Tradizionaleko Artilleriak ekainaren 30eko iluntzean egiten du. Arku koloretsu bat da, eta kantinera pasatzen da azpitik. 2010ean egin zuten lehen aldiz, eta gero eta ikusle gehiago biltzen ditu. Leku ezberdinetan egin izan dute, beti Alardea amaitu ondoren.

Botafuego izenekoa Alardeko kanoien metxa pizteko erabiltzen den bengala moduko elementua da. Duela bost urte, desfilatzen amaitu ondoren, soberan gelditu zitzaizkion botafuego batzuk Alarde Tradizionaleko Artilleriari. "Normalean, suntsitu edo erre egiten ditugu. Baina egun hartan beste erabilera bat ematea pentsatu genuen", gogoratu du Agustin Camarero artilleriako kapitainak. Botafuegoak piztu eta eskuetan hartuta, kantinerari arku bat egitea bururatu zitzaien. Nahikari Soler izan zen argi arrosen azpitik pasa zen lehen kantinera, Artilleriako buruzagien besoetatik helduta.

Bitxikeria edo anekdota moduan sortu zen ekimen horrek fama hartu du, pixkanaka, hurrengo urteetan. "Lehen proba hura oso ondo atera zen, eta jendeari gustatu zitzaion. Egia esan, ikuskizun koloretsua eta ikusgarria da. Egunari amaiera emateko modu polita da", argitu du Agustin Camarerok. Orain, arkua non egingo duten galdetzen die jendeak urtero, sanmartzialak hurbiltzen direnean. Baina ezinezkoa da erantzun ziurra ematea: "Kantinerari iritzia eskatzen diogu lekua hautatzeko. Joan den urtean Santiagon egin genuen, bidegorriaren ondoko zubian. Aurten ere, baliteke han izatea, edo Eskoleta kalean, bestela. Horiek dira bi aukera nagusiak".

Botafuegoen bidearen kokalekuaz gain, Artilleriako kideek badituzte bestelako ardurak. Aspaldi hasi dira Alarderako prestaketetan. "Kanoiak berrikusi behar izaten ditugu urtero, kontrolatu eta txukun uzten ditugu. Orain, zaldiak prestatzen ari gara", adierazi du Camarerok. Pozik dago Maria Errazquin Irigoyen kantinerarekin: "Oso jatorra da, eta primeran daramatza prestaketak". Botafuego bidea izango da kantinerak gogoz esperoko duen une berezietako bat.



# “Nahitaez bete behar dut egutegia”

Maria Jesús Echepare

Gaztetan, Maria Jesús Echepare ez zen Alardeko kantinera atera. Hala ere, alabarik eduki ez duen arren, ehunka kantinera izan ditu etxean. Hogeita hamar urte egin ditu aurten Echepare jostunak Alardeko kantineren jantziak prestatzen. Seiehun baino gehiago izan ditu esku artean

**- Noiz hasi zinen josten? Zergatik?**

Beti gustatu izan zait jostea. Panpinekin hasi nintzen txikitan, garai hartako beste neska asko bezala. Beranduago, tailer batera joaten hasi nintzen, arratsaldetan, ikastera. Hamahiru urte pasa nituen azkenean tailerrean. Gero ezkondu nintzen, eta semeak izan nituen.

**- Nola hasi zinen kantineren jantziez arduratzen?**

Udaletik deitu zidaten, 1985ean. Orduan, kutxa batean gordeta zituzten jantzi guztiak, eta zeudenak banatzen zituzten kantineren artean. Konponketak etxean egiten zituzten. Norbaiti bururatu zitzaion pertsona batek arduratu behar zuela jantziak konpontzeaz eta banatzeaz. Niri deitu zidaten, eta ilusioz gainezka joan nintzen.

**- Zein izan da zure lana aurrerantzean?**

Orain jantziak etxean gordetzen ditut. Garbitu, konpondu, eta erabiltzeko prest uzten ditut. Kontu handiz ibili beharra dago,

> “Jantzi politak dira, baina delikatuak ere bai”

jantzi politak dira, baina delikatuak ere bai. Batzuetan, nesken mutil-lagunek edo amonek jantziak oparitu nahi izaten dituzte. Kasu horietan, berriak egiten ditut. Hala ere, zaharrak ere txukuntzen ditut, aldea nabaritu ez dadin.

**- Noiz hasi ohi zara jantziak prestatzen?**

Maiatzaren hasieran. Lehen asteetan oso urduri jartzen naiz, esperientzia dudan arren, edozein ezusteko gerta daitekeelako. Antolakuntza handia behar da, kantinera bakoitzarekin geratzeko, eta probak egiteko. Kantinera asko dira, eta zaila izaten da hitzorduak finkatzea. Askok kanpoan ikasten dute. Denak etxetik pasa direnean, orduan hasten da benetako lana. Erlojuaren kontrakoa izaten da normalean. Aurten goizeko 4:30ean jaiki izan naiz lan egiteko. Egutegi bat daukat eta nahitaez bete behar dut.

> “Kalitate oneneko materialarekin lan egiten dut”

**- Asko aldatu da zure lana hogeita hamar urtean?**

Ikaragarri. Gaur egun erraztasun guztiak ditut. Oihalak Irunen lortzen ditut eta tolesak Donostian egiten dizkidate. Garai batean Biarritzera eta Bilbora joan behar izaten nuen.

Kantineren komisioak behar den guztia gastatzen du. Kalitate oneneko materialekin lan egiten dut.

**- Nolakoa izaten da San Martzial eguna zuretzat?**

Oso urduri egoten naiz, ezin duelako ezerk hutsik egin. Dena den, kantinerek badakite non egongo naizen, eta josteko tresnekin egoten naiz, behar izanez gero konponketak egin ahal izateko.

**- Ez al duzu erretiroa hartzeko asmorik?**

Pentsa, neska bati bataioko soinekoa egin nion, eta gero kantinera-jantzia. Edo behin baino gehiagotan gertatu zaidana da amari eta alabari kantinera jantzia egitea. Horrelakoetan konturatzen naiz denbora asko daramadala. Dena den, kostako zait uztea. Pozik egiten dut lan, zoriontsu naiz.

# Alarde Tradizionala: Armen ikuskatzea eta entseguak

**Armen ikuskatzea EKAINAK 29**

**ZALDIERIA**
San Juan plaza 15:50
**URANZU**
Uranzu kalea 16:00
**AMA SHANTALEN**
Ama Shantalengo iturria 16:05
**BEHOBIA**
Mª Juncal Labandibar 16:35
**BIDASOA** Alunda 17:05
**AZKEN PORTU**
Dario de Regoyos 17:45
**BUENOS AMIGOS**
Artiako zubia 18:00
**MEAKA** Ibarrola 18:10
**OLABERRIA** Estebenea 19:00
**SANTIAGO**
Prudencia Arbide 19:10
**ARTILLERIA**
San Juan 19:20
**LAPITZE**
Alai-Txoko parkea 19:40
**BELASKOENEA**
Belaskoenea ikastetxea 19:55
**BENTAK**
Ezurriki Kalea 20:10
**ANAKA** F. Iratxeta 20:35
**SAN MIGUEL** A. Anguera plaza 20:50
**REAL UNIÓN**
Zabaltza 21:05

| KONPAINIA | Ekainak | Ekainak | Ekainak | Topalekua | Ordua |
|---|---|---|---|---|---|
| DANBORRADA | | 26 (23:00) | 27 (22:00) | Urdanibia - San Juan | |
| BANDA | 25 (21:30) | 26 (22:30) | | San Juan plaza | |
| BEHOBIA | 22 | 24 | 25 | Kaiola taberna | 21:00 |
| BENTAK | 20 | 23 | 25 | Ongi Etorri taberna | 21:30 |
| MEAKA | 22 | 24 | 25 | Errota Zahar | 21:00 |
| BIDASOA | 22 | 23 | 25 | Alunda | 21:00 |
| SAN MIGEL | 22 | 24 | 25 | Geltoki kalea | 21:00 |
| OLABERRIA | 22 | 24 | 25 | Estebenea | 20:30 |
| AMA SHANTALEN | 22 | 24 | 25 | Urdanibia plaza | 21:15 |
| ANAKA | 22 | 24 | 25 | Aiako Harriak kalea | 21;00 |
| BUENOS AMIGOS | 22 | 24 | 25 | Errromes plaza | 21:15 |
| URANZU | 22 | 24 | 25 | Uranzu kalea | 21:15 |
| SANTIAGO | 22 | 23 | 25 | Platanoen plaza | 20:45 |
| LAPITZE | 22 | 23 | 25 | Aduana, 58 | 21:15 |
| REAL UNION | 19 | 22 | 25 | Zabaltza plaza | 21:00 |
| AZKEN PORTU | 22 | 24 | 25 | Auzokoen elkartea Pio Baroja kalea | 21:00 |
| BELASKOENEA | 22 | 24 | 25 | Auzokoen elkartea | 21:00 |

ARRANKADILA, 25an. Banda eta Danborrada batera, 26an, 23:00etan Urdanibian

# Alarde Publikoa: Armen ikuskatzea eta entseguak

**Armen ikuskatzea EKAINAK 29**

**SANTIAGO**
16:30ean Triangelu plazatxoan
**BIDASOA**
17:00etan, Antonio Valverde kalean.
**AMA XANTALEN**
17:15ean, Urdanibia plazan (Moskun).
**OLABERRIA**
17:25ean, Victoriano Juaristi kalean.
**ARTILLERIA**
17:50ean, San Juan Harria plazan.
**LAPITZE**
18:25ean, Pio XII plazan.
**LANDETXA**
19:07ean, Bizkaia kalean.
**ANAKA**
19:40ean, Puiana hiribidean

| KONPAINIA | Ekainak | Ekainak | Ekainak | Topalekua | Ordua |
|---|---|---|---|---|---|
| BIDASOA | 19 | 22 | 24 | Palmera Monteron, Tahona ondoan | 20:30 |
| LANDETXA | 20 (19:30) | 23 (20:00) | 26 (19:30) | Bizilagunen Elkartean | |
| OLABERRIA | 22 | 23 | 24 | Willy ostatuan | 20:30 |
| AMA XANTALEN | 19 | 22 | 23 | Peña kalean | 20:30 |
| LAPITZE | 18 | 22 | 25 | Pio XII plaza | 20:00 |
| ANAKA | 18 | 19 | 24 | Txanaleta plaza | 20:30 |
| SANTIAGO | 18 | 20 | 26 | Triangelu plazan | 20:30 |
| DANBORRADA | 27 | | | Peña kalean | 21:00 |
| BANDA eta DANBORRADA | 29 | | | Peña kalean | 21:00etan, Urdanibia plazan |

# “Ilusio handiarekin hartu dut”

**CARLA PAVESI, Alarde Publikoko Danborradako kantinera**

Alardean desfilatzen hasi zenean, Carla Pavesik ez zuen kantinera ateratzeko helbururik. Baina azken bi urteotan kantineraren laguntzaile izan da. Aspaldiko bi lagunen ondoan atera da, entseguetan eta San Pedro eta San Martzial egunetan. Esperientziak gogoa piztu dio, eta lehen aldiz aurkeztu du bere burua Danborradako kantinera izateko. Zozketan, bere izena atera da. Alardeko ikuspegi berezienetako bat ezagutuko du aurten Carla Pavesik.

**- Noiz hasi zinen Alardean desfilatzen, eta zergatik hartu zenuen erabakia?**

Duela sei urte hasi nintzen. Nire koadrilako neska batek bi urte zeramatzan ateratzen. Nik jakin-mina nuen, baina ez nintzen urratsa ematera animatzen. Urte hartan Dunboa eskolan egiten dituzten tailerretara hurbildu nintzen, doinuak ikasteko. Gero entseguetan hasi nintzen, eta probatzea erabaki nuen. Ez naiz damutzen, primeran pasatzen dudalako. Kanpoan ere gustura nengoen. Betidanik ikusi izan ditut bi Alardeak. Baina festa barrutik bizitzeak ez dauka zer ikusirik.

**- Nolako esperientziak izan ziren lehenengoak?**

Hasieran beldur pixka batekin atera nintzen, jaiaren inguruan dagoen gatazka dela eta. Arratsaldean Kale Nagusian behera jaitsi aurretik, urduri nengoen, tentsioa nabaritzen delako inguruan. Gainerakoan, gustura ibili nintzen. Danborradako jendeak oso ondo hartu ninduen, eta integratzen lagundu zidan.

**- Urte berezia izango da aurtengoa. Kantinera aterako zara.**

Bai, ilusio handiarekin hartu dut, behintzat. Gustura atera izan naiz soldadu moduan, baina egia da kantineraren irudia garrantzitsua dela Alardean. Emozio handiko egunak izango dira. Zortea izan dut, lehen aldia zelako, eta beste lau hautagai zeudelako zozketan. Banuen itxaropena, baina banekien zaila izango zela. Beraz, lasaitasunez hartu nuen.

**- Nolakoa izan zen aukeraketaren eguna?**

Kontserbatorioan nengoen, klasea neukalako. Danbor Nagusiaren deia jaso nuen. Kabigorri tabernara hurbiltzeko eskatu zidan, besterik ez. Iritsi nintzenean, Danborradako kide batzuk aurkitu nituen, eta txantxetan hasi ziren, aurten txibilito asko zeudela, eta ezin izango nuela atera. Gero kantinera izan nahi nuen galdetu zidan Danbor Nagusiak. Segituan esan nuen baietz. Ama, izeba, lehengusuak, eta lagunak hurbildu ziren, eta momentu hunkigarria izan zen.

**- Prestaketa batzuk eskatzen ditu kantinera ateratzeak. Hasi al zara?**

Bai. Duela gutxi, hori bai, ikasketak amaitzen ari naizelako, eta aldi berean lanean nabilelako. Denbora askorik ez daukat, baina laguntza handia jaso dut. Kantineren Batzordekoak nirekin harremanetan jarri ziren, eta azkar lortu nituen San Martzial eguneko jantzia eta botak. Gainerako egunetarako, opari asko egin dizkidate; beraz, arazo handirik ez dut izan. Dena martxan dago, eta lasai nago.

**- Jaso dituzun aholku guztien artean, zein aukeratuko zenuke?**

Onena, disfrutatzea. Festa bat dela ez ahaztea, eta beti bezain ondo pasatzea. Ez San Martzial eguna bakarrik, hilabete osoa baizik, prestaketak hasi nituenetik. Hori da aholkurik onena.

# Kantineren babesle

1998an lehen aldiz Udal Alarde mistoa antolatu zutenean, Irungo Udalak eman zituen kantineren jantziak eta materiala. Hiru urte geroago bertan behera geratu zenez geroztik, jantziak erabili gabe geratu ziren, Udaletxean. "Aurrerantzean, jantziak guk egin eta konpondu ditugu. Diru publikoarekin, baina guk kudeatuta", azaldu du Karmele Tolosak. Hasieran, emakume bakar batek hartu zuen ardura. Denborarekin, Kantineren Batzorde bat eratzea erabaki zuten. Kantinera ohiek, gurasoek eta Alardeko agintariek osatzen dute. Zortzi laguneko lantaldea da.

Urte osoko lana izaten dute Kantineren Batzordean. Uztailean hasten dira, balorazioekin: "Kritikoak gara geure buruarekin. Urtero hobetzen saiatzen gara", baieztatu du Beatriz Vendrellek. Eztabaidak izaten dituzten arren, giro onean aritzen direla azpimarratu du Karmele Tolosak. Alazne Picos kantinera ohiak azaldu ditu Batzordearen eginbeharrak: "Alde batetik, kantinerei babesa eta aholkuak ematen dizkiegu. Bestetik, oinarri logistikoa: jantziak, botak, edo upeltxoa". Lanik handiena maiatzeko lehen hamabostaldian hasten da. Konpainia bakoitzak, zozketa bidez, kantinera hautatzen duenean, lehen bilera antolatzen dute. "Kantinera guztiak eta haien familiak elkartzen ditugu, jarraibideak azaltzeko, eta zalantzak argitzeko. Haien artean harremana eta konfiantza sortzea garrantzitsua iruditzen zaigu", argitu du Picosek.

> "Kritikoak gara geure buruarekin. Hobetzen saiatzen gara"
>
> Beatriz Vendrell

Gero, kantinera bakoitzarekin biltzen dira, banan banan, jantziaren probak egin eta beharrak zehazteko. "Uztailean aurreikuspenak egiten ditugun arren, proben ondoren sortzen dira arazorik handienak. Jostunek oso denbora gutxi izaten dute", nabarmendu du Alazne Picosek. Gehienetan konponketak egin behar izaten dituzte, eta kasu batzuetan, jantzi berriak. Beatriz Vendrellek azpimarratu du ez dutela benetako modelorik eduki: "Argazkiak begiratuta patroiak atera, eta horiekin lan egin izan dugu". Aholkuak eta bestelako azalpenak ere ematen dizkiete kantinerei. Neska gehienek aldez aurretik desfilatu izan duten arren, kantinera ateratzen diren urtean behar bereziak izaten dituzte. "Jende askok pentsatuko du ez diela ilusio berezirik egiten. Baina ez da egia. Inoiz baino emozio eta urduritasun handiagoa izaten dute", adierazi du Patxi Perez Anakako kapitainak.

Batzordeko kantinera ohiek azal dezakete kantinera ateratzea haientzat zer izan zen. "Kantinera ateratzen zarenean, askoz lehenago hasten zara disfrutatzen: lehen abanikoa oparitzen dizutenean, ile-apaindegiko lehen proba egiten duzunean... Entseguak iristen direnean ere, beste zirrara batekin bizi dituzu", gogoratu du Alaznek. Laida Oronozek bat egin du lagunaren iritziarekin: "Atentzio gune nagusia zara, eta gauzak zeharo desberdin ikusten dituzu. Soldadu zarenean ez dizkizute horrelako animoak bidaltzen". Momentu bakoitza gozatzeko aholkatu ohi die Patxi Perezek kantinerei: "Aukeratzen dituztenean, badirudi San Martzial eguna oso urrun dagoela, baina ziztu bizian pasatzen dira asteak. Eta bukatzen denean, pena handia ematen du".

> "Aurreikuspenak egiten ditugun arren, proben ondoren sortzen dira arazorik handienak"
>
> Alazne Picos

## Ahotsa ematen diete kantinerei

Ekainaren 28ko kantineren aurkezpena ere antolatzen du Batzordeak. Hasteko, pregoi txiki bat egiten dutela azaldu du Alazne Picosek: "Guk aurrera eramaten dugun proiektuari erreferentzia egiten diogu, adieraziz bide onean doala eta sendotzen ari dela. Gero, Alardeko agintariek hartzen dute hitza". Kantinerei mikrofonoa eskuan hitz egiteko aukera ematen diete: "Ez dira kantinera hutsak, ahotsa daukate. Hortaz, une horretan sentitzen dutena adierazteko aukera ematen diegu". Batzuek hitz lauz egiten dute, beste batzuek bertsotan. Eta askok, negarrez. Jasotako babesa eskertzeko momentua izaten da.

256. zk.
Bigarren aroa
Ekainak 15
2015

Irungo euskarazko hamabostekaria

# Irunero

**Erreportajea**
Loiola Zuazu eta Uxue Gaztelumendi, lehengusuak eta kantinerak 2014an eta 2015ean

**Kirolak**
Irungo kirolariak sanmartzialetan

# Beste urte batez, sanmartzialak Irunen

4-5 San Martzial eguna iraganeko argazkitan
6-7-8 Kirolak. Irungo kirolariak sanmartzialetan
11 Gurasoentzat Jeloskor nago, inbidia dut!
12 Haurren leihoa. Toki Alai HH
13 Gazteen lanak. Irungo La Salle BHI
14 Gazte informazioa
15 Sanmartzial jaietako egitaraua

www.irunero.com
Sar zaitez web orrian eta Facebooken

Irunen, zuk Euskaraz!
Herri Jakintza
EUSKALTEGIA
HABE: Titulu Ofizialak
Autoikaskuntza

Sanmartzialetan ere, euskaraz!
·Euskara eskolak maila guztiak
·H.A.B.E. Titulu Ofizialak
·EGA
·Azterketen Prestaketa
·Hizkuntz Eskakizunak
·IVAP ·IRALE
• Guraso taldeak
• Mintza-taldeak
Nafarroa hiribidea, 13 IRUN
943 63 52 66
herrijakintza@gmail.com

# Irun atzo Irun gaur

## Cipriano Larrañaga atzo eta gaur

1

IUA: 53157

1929. urtean Udalaren Osoko Bilkurak kale honi Cipriano Larrañaga deitzea erabaki zuen, Irungo alkate izan zenaren omenez.

Oñatin jaioa 1855 edo 1856an, 21 urte zituenetik Irunen bizi izan zen, zehazki, Kolon ibilbidean, eta gure hiria biziki maitatzera heldu zen.

Cipriano Larrañaga Bereziartua, alderdi Liberalekoa, 1898tik 1904ra eta 1909tik 1911ra bitartean alkate izan zen. Haren agindupean obra handiak egin ziren; adibidez Iparralde hiribidearen proiektua, Bidasoko nazioarteko zubia (Abenidakoa), ospitaleko pabilioiak, udaletxearen konponketa 1903ko Euskal Jaiak zirela eta, uren ekartzea eta estolderia handitzea, Biteri eskolen eraikitzea, mendien basoberritzea, eta abar. Aldi berean, bere aduana agentzia zuzentzen zuen.

Emilio Navasek *Irun en el siglo XX* liburuan hauxe idatzi zuen hari buruz: "Lanarekiko jarrera zintzoa, arduratsua eta kezkatsua ezaugarririk behienak izan zituen. Politikak asko kaltetu zion osasuna; izaera zuhurrekoa, Irunentzat hoberena nahi izan zuen beti".

1913an zendu zen.

**Argazkiak:**

1- Kalea Kolon ibilbidetik ikusita Gerra Zibileko (1936ko irailean) sutearen ondoren.

2- Cipriano Larrañagaren eta Zabaltza plazaren arteko kale-kantoiko eraikina sutearen ondoren. Aldameneko orubean (X gorri batez markatuta), Café Irun kokatuta zegoen eraikinaren aiurriak. Atzean ikusten den Gipuzkoa hiribideko eraikin modernoagoa, berriz, ez zuen suak haienbeste kaltetu.

3- Kantoiko etxea gaur egun. Duela urte batzuk beste bi solairu altxatu zituzten.

Iturria: José Monje.
*Irungo kaleen izenak*

2

IUA:IUA:40481

3

## Irunero

**Erredakzioa :**
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun
**Euskara zuzentzailea:**
Xabier Kerexeta
**Publizitatea:**
Ion Otxoa
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas

sgarcia@baseclick.es
**Argitaratzailea:**
Baseclick S.L.
**ISSN:** 1134-0606
**Lege gordailua:**
SS-230-94.
Maiatzaren Lehena, 23 - 20304 IRUN
Tel: 693 82 80 99
www.irunero.com

Anaka kalea, 11
IRUN
943.61.54.57

TABISA
TANATORIO DEL BIDASOA

San Pedro kalea, 49
HONDARRIBIA
943.64.54.57

BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

# Lekukoa, lehengusinari

Uxue Gaztelumendi eta Loiola Zuazu 2014ko San Martzial egunean

Lore sorta eskuetan zeukan Uxue Gaztelumendi Zuazuk. 2014an Buenos Amigos konpainiako kantinera izan ondoren, 2015ekoari lekukoa emateko prest zegoen. Egundoko ezustekoa hartu zuen, bere lehengusinak hartuko zuela jakiterakoan. Loiola Zuazuren etxera igo, jendearen artean bidea egin, eta besarkada handia eman zion. "Negar batean hasi ginen", gogoratu du Uxue Gaztelumendik. Kantinera atera ondorengo malenkonia arinduko dio lehengusinak sanmartzialetan.

Lehen aldiz aurkeztu dute aurten Loiola Zuazu. Hori dela eta, familian inork ez zuen espero kantinera aterako zenik. "Sorpresa handia izan da. Gogoa banuen, baina itxaropen gutxi, egia esan". Lagunekin zegoen, sakelako telefonoan aitaren mezua jaso zuenean. Etxera iristerakoan, Buenos Amigos konpainia erdia topatu zuen atarian. Lore sorta lehengusinak ematea "ahaztezina" izan zela baieztatu du Loiola Zuazuk: "Ez da ohikoa horrelako kasuak ikustea. Gainera, hurbileko lehengusinak gara, oso harreman estua dugu". Uxue Gaztelumendik berretsi ditu lehengusinaren hitzak: "Urte bakarreko aldea dugu, eta gainerako lehengusuak gazteagoak dira. Gertuko tratua dugu".

Elkarrekin bizi izan dituzte sanmartzialak txikitatik. Beti Buenos Amigos konpainiari lotuta. "Loiolaren aita Buenos Amigosko kapitain izan zen zortzi urtez. Aitona bere garaian Buenos Amigosen atera zen soldadu, amaren osaba eta lehengusuak ere bai. Gainera Loiolaren etxetik gertu entseatzen dute, eta urtero jaitsi izan gara ikustera", azaldu du Uxuek. Iaz berak izan zuen kantinera ateratzeko esperientzia probatzeko aukera: "Dena oso ondo atera zen eta asko disfrutatu nituen egun guztiak. Pena da azkar pasatzen dela". Loiola Zuazurentzat ere laburra izan zen lehengusinaren kantinera urtea: "Ni Erasmus egonaldian nengoen, eta ez nuen etortzeko asmorik. Baina Uxue kantinera aterako zela jakiterakoan, moldatu nintzen buelta-tzeko. Ekainaren 28an hartu nuen hegazkina Suitzan, eta hurrengo egunak disfrutatzeko aukera izan nuen".

> "Oso harreman estua dugu"
> Loiola Zuazu

> "Egun garrantzitsuenetan harekin egongo naiz"
> Uxue Gaztelumendi

Aurten Uxue Gaztelumendi da Irundik kanpo egon dena. Bartzelonan pasa ditu ekaineko lehen bi asteak. "Prestaketetan ezin izan dut nahi bezainbeste lagundu. Hala ere, egun garrantzitsuenetan harekin egongo naiz", gogoratu du. Makina bat aholku ere eman dio. "Niretzat, bere ikuspegia oso garrantzitsua da. Niri bururatuko ez zitzaizkidan gauzak pentsatzen lagundu dit", aipatu du Loiola Zuazuk. Naturaltasunez aritzeko gomendatu dio lehengusinak. Urduritasuna alde batera uzteko, eta ondo pasatzeko. Konpainiako lekukoaz gain, oparitxo batzuk ere jaso ditu aurtengo kantinerak, oinordetzan: "Berak erabilitako belarritakoak edo halako detaile txikiak eramango ditut". Laster hasiko da entseguetan Loiola Zuazu. Hurbil izango du beti Uxue Gaztelumendi lehengusina. Baita San Martzial egunean ere. Elkarrekin bazkalduko dute 2014ko eta 2015eko Buenos Amigos konpainiako kantinerek.

# Historia irudietan

Kutxa: 73181

**1.- 1910-15eko Artilleria Bateriako kantinerak gurdiz egiten zuen Alardea.**
**2.- Antonio Arregui, Alardeko Komandante 1942an.**
**3.- Amalia Zabalegui, Artilleria Bateriako Kantinera San Juan Harria plazan 1954ean.**
**4.- Udaletxea diktaduraren garaian.**
**5.- Kateko konpainiaren deskarga San Juan Harria plazan 1952an.**
**6.- Ikusleak San Juan Harria plazan 1952ean.**
**7.- San Migel konpainia 1936ean. Kantinera Aurora Reguero izan zen.**
**8.- Konpainiak eta ikusleak egun euritsu batean San Juan aldean 1914-15ean.**
**9. - San Pedro eta San Martzial jaietakon iragarki-kartela 1974ean.**

IUA: 41259

1

IUA: 26419

2

IUA: 26395

3

IUA: 52003

4

5

IUA: 51896

IUA: 27295

6

IUA: 1595

7

1.- Juncal De La Fuente Díaz ume frantses batekin 1947ean. 2.- Loli Arocena, Behobiko kantinera, Larretxipi kalean 1980ean. 3.- Carlos Molinero, komandante 1947tik 52ra.
4. - Patxo Rodriguez, jeneral 1975etik 78ra.
5.- Rosa Mari Jauregui, Meakako kantinera 1977ean. 6.- Danborrada San Juan Plazan 1985ean. 7.- Asunción Zapirain, Anakako kantinera 1969an. 8. - Hatxeroen kaboa 1914-15ean.

IUA: 40984

8

AVIA
Gasolindegia
VRANZV
Avda. Navarra, 18 - 20304 IRUN
Tels.: 943 62 51 83
Fax: 943 63 04 98
javier @avia-uranzu.com
www.estaciondeserviciouranzu.com
Javier Aguirre Lasa
Gerente

PAPELERÍA
mayre
Arte Ederrak
Bulego materiala
Eskola materiala
Iparralde hiribidea, 4
IRUN
☎ 943 62 44 27
mayrepaperdenda@gmail.com

# Kirolari irundarrak sanmartzialetan

Denboraldian zehar entrenatzen aritu ondoren, gogoz hartzen dituzte sanmartzialak kirolari irundarrek. Denek ez dituzte indar berdinarekin gozatzen. Batzuk lehiaketa garaian izaten direlako oraindik. Ekainaren amaiera etxetik kanpo pasatzen duenik ere bada. Edonola ere, festa bereziak dira sanmartzialak gehienentzat.

## Jon Vazquez, Bidasoako jokalaria

**Jon Vazquez (goian ezkerran) eta Alberto Gorriz (goian erdian) batera ateratzen dira Uranzu konpainian.**

Atzean utzi du Jon Vazquez Bidasoa-Irun taldeko jokalariak play off-eko kolpea. Hurrengo denboraldian du jada burua. Lehenago, hala ere, atseden hartzeko denbora hartuko du. Horretarako aukera aproposa eskaintzen dute sanmartzialek. “Denboraldi luzearen ondoren, oporrak edukitzea eskertzen da. Gainera, jaiak baldin badira, are gehiago deskonektatzen duzu”, argitu du Vazquezek. Txikitatik sanmartzial zale amorratua izan ez den arren, oso ondo pasatzen duela onartu du: “Urtean zehar ikusi ez duzun jendearekin elkartzen zara, eta alde horretatik primerakoak dira”. Lagun artean pasatzen ditu jaiak Jon Vazquezek. Betti Gottik antolatzen duen Herri Bazkarian parte hartzen du, eta ekainaren 28an, koadrilako afaria izaten du.

Alardean ere ateratzen da, Uranzu konpainian. “Txilibitoarekin ateratzen naiz, eta entsegu guztietan parte hartzen dut. Lagunak izaten ditut inguruan. Beraz, desfilatzeaz gain, etenaldietan hitz egiteko aprobetxatzen dugu”, azaldu du Jonek. Ekainaren 30a ere ilusioz hartzen du: “Goizean goiz jaiki beharra dago, eta onartzen dut hori ez zaidala gehiegi gustatzen. Baina gero, Urdanibia plazatik atera ondoren, kaleak gainezka eta jendea txaloka ikusteak emozioa eragiten du”. Badago San Martzial eguneko beste une bat, Jon Vazquezentzat berezia dena: “Familiarekin bazkaldu ondoren, lagunekin elkartzen naiz, arratsalderako motorrak berotzeko”. Arratsaldean desfilatu aurreko ohitura izaten da irundar askorentzat.

## Alberto Gorriz, Formenterako jokalaria

**Eskubian Alberto Gorriz, eta bigarrena ezkerretik Jon Vazquez, beren lagunekin 2014ko San Pedro egunean.**

Ezohikoa izan da 2014/2015 denboraldia Alberto Gorriz futbolariarentzat. Maleta egin eta Balear Uharteetara bidea hartu zuen udan. Formenteran aritu da jokatzen, Hirugarren Mailan. “Esperientzia berezia izan da, oso polita. Gogorra ere bai, etxetik kanpo eman dudan lehen urtea izan baita”, onartu du. Denboraldia amaitu eta etxera bueltatzeko gogoa dauka. Familiarekin eta lagunekin elkartzeko, eta sanmartzialak gozatzeko: “Ikaragarri gustatzen zaizkit. Etxean txikitatik bizi izan ditut”.

Senideekin pasatzen du festen zati bat. Bestea, lagunekin: “Herriko gazte gehienek bezala bizi ditudala uste dut. Lagunekin ateratzen naiz, eta urtean zehar izandako ardurak alde batera uzten ditut. Nahiko lasai ibiltzen naiz, hala ere”. Jaietako momentu bereziak aukeratzerakoan, San Martzial eguna azpimarratzen du Gorrizek. Lagunekin ateratzen da Alardean. “Koadrilakoekin ateratzen naiz, Uranzu konpainian. Ni ez naiz sekula Alardeekin dauden eztabaidetan sartzen. Disfrutatzera ateratzen naiz, besterik gabe”, adierazi du. Dena den, futbolariak badu bereziki gogoko duen beste jarduera bat. Betti Gottik antolatzen duen Herri Bazkaria: “Oso egun polita da, jaietako onenetariko bat. Koadrila gazte guztiak elkartzen dira, eta giro bikaina sortzen da”.

8.orrialdean jarraitzen du

LAUBURU Estudio
Kreatiboa!
Kamiseta Pertsonalizatuak
Biniloak Ibilgailuetarako, etxerako; PEGATAK!
Diseinua logotipoak, publizitatea eta Web
lauburuestudio.com
López de Becerra 4. Pio XII - Irun | 943 492 943

aek IRUNGO Euskaltegia
UZTAIL, ABUZTU ETA IRAILA
Aurrez aurrekoak
3 ordukoak: 9:30 -12:30 edo 16:00 -19:00 - 102 €
4 ordukoak: 9:00 -13:00 edo 16:00- 20:00 - 136 €
5 ordukoak: 8:30 -13:30 - 169 €
On-line ikastaroak
Bi hilabetetan 8 astez. 76 ordu - 251 €
Azterketen prestaketa. EGA, HABE: 1, 2 eta 3
Matrikula epea
Ekainaren 1etik 25era
Proba-eguna: ekainaren 25a
Legia kalea, 6
943 628834
irun@aek.org

## Olatz Zuazua - Leka Enea
## Mahai teniseko jokalaria

Erdian, Olatz Zuazua San Martzial egunean.

Irundik urrun pasako ditu Olatz Zuazua mahi tenis jokalariak sanmartzialetako egun gehienak. Andaluzian, Antequeran egongo da ekainaren 20tik 28ra, Espainiako Mahai Tenis Txapelketan. Ez da lehenengo aldia izango, badu aurreko urteetako esperientzia. “Azken urteotan telefonoz bizi ditut jaiak. Lagunekin hitz egiten dut, eta entseguetako musika jartzen didate entzuteko”, azaldu du. Hori horrela, festarako gogo handiz bueltatzen da Zuazua txapelketatik, eta zukua ateratzen die San Pedro eta San Martzial egunei.

Ekainaren 29an bazkaria izaten du familiarekin. Gero, arma ikuskatzea ikustera joaten da: “San Migel eta Anaka konpainienak ikusten ditut normalean, bi auzo horietan bizi izan naizelako. Gero lagunekin zerbait hartzera joaten naiz”. Ekainaren 30eko eguna ere familian pasatzen du. “Alardea bukatzen ari denean, lagunekin elkartzen naiz, eguna haiekin amaitzeko”, aipatu du. Atsedenerako garaia izango du ondoren Olatz Zuazuak, baina laster hasiko da berriro entrenatzen. Abuztuaren erdi aldean Europa mailan lehiatzen hasiko delako Leka Enearekin

## Ander Monserrat -Trinkete jokalaria

Txapelketa garaian harrapatzen dute sanmartzialek Ander Monserrat trinkete jokalaria. Herri Bazkarira edo asteburuan antolatzen diren beste jardueretara ezin izaten da joan. Iruñean edo Gasteizen egoten da, lehiatzen. Gainerakoan, modu aktiboan parte hartzen du jaietan, tronpeta jotzen baitu. Irungo Atseginako txarangarekin aritzen da, erraldoien eta buruhandien konpartsan. Irungo Bandaren kontzertuetan eta bestelako jardueretan ere parte hartzen du. “Gustatzen zait giroa jartzen aritzea eta jendea animatu araztea”, baieztatu du.

Alardean ere tronpetarekin ateratzen da, Bandan. “Beste konpainiekin konparatuta, animazioa handiagoa da, eta jendea pozez zoratzen egoten da Banda pasatzen denean”, azaldu du. San Martzial egunean, goizeko bostetan ateratzen da Monserrat etxetik. Bere aitonaren etxeko atarian jotzen dute Alborada, eta ikustera joaten da. Desfilatu eta gero, mendira igotzen da, eta familian bazkaltzen du ondoren. Arratsaldea eta iluntzea lagun artean pasatzen ditu. Dena den, jaietako momentu gogokoena aukeratzekotan, atzera egiten du: “Gazteen artean ez da ohikoa, baina niri San Pedro eguna asko gustatzen zait. Bandarekin diana jotzen dut, prozesioan ondoren, eta eguerdian kontzertua izaten dugu. Arratsaldean armen ikuskatzeak ikusten ditut. Oso egun polita da”.

TABERNA - JATETXEA
MARIÑO
GALIZIAKO ESPEZIALITATEAK
- Banketeak
- Jaunartzeak
- Despedidak
ATSEDENALDIA: Astelehen eta ostegun arratsaldean
Zubelzu, 6 - IRUN - Tel 943 61 50 01

LARRIALDI ZERBITZUA 8:00-22:00
CERRAJERIA IRUN
- Ateak eta kutxa gotorrak irekitzen dira
- Giltza eta mando mota guztien kopiak
- Kode bidezko giltzak eta maisu-giltzak
- Bizilagunen komunitateetan mantentze-lanak
Hondarribia kalea, 3. IRUN. www.cerrajeriairun.com
☎ 943 570 000- Fax 943 576 001

## Patricia Hoyos, Oiasso-Bidasoa XXI waterpoloko atezaina

Oiasso-Bidasoa XXI waterpolo elkarteko nesken denboraldi bikainaren arduradunetako bat izan da Patricia Hoyos. Maila handiko atezaina da irundarra, eta Espainiako selekzioarekin entrenatzen aritu da aurten. Sanmartzialetan, aldiz, ez du uretan sartu eta atea babestu beharko. Jai izango du. “Orain arte ez ditut inoiz festak galdu, eta aurten ere ez, zorionez”, aipatu du Hoyosek.

Alarderako lehen entseguekin hasiko dira festak waterpolo jokalariarentzat: “Txikitatik joan izan naiz entseguak ikustera, familiarekin”. Bandaren eta Danborradaren entsegua gustuko du, bereziki. San Juan sua ere ikusiko du, urtero bezala, Patricia Hoyosek. Baina egun bat aukeratzekotan, zalantzarik ez dauka: ekainaren 30a. “Egun osoa da polita. Goizean familian ikusten dut Alardea. Bazkaria ere, familian egiten dut. Arratsaldean, lagunekin joaten naiz Alardea ikustera”, azaldu du. Espaloitik ikusi eta txalotzen du Patricia Hoyosek Alardea.

## Saioa Altzaga, Erroibide-Iruneko jokalaria

Goiko ilaran, erdian, Saioa Altzaga bere lagunekin.

Erroibide-Irun Estatuko Lehen Mailan mantentzeko gogor lan egin ondoren, atseden hartzeko garaia du Saioa Altzaga saskibaloi jokalariak. Badu sanmartzialak ailegatzeko gogoa: “Jai bereziak dira, Irungoak izanik, askoz gehiago disfrutatzen ditudalako”. Lagunekin igarotzen du denbora gehiena jaietan. “Herri Bazkarira joaten gara beti. Kontzertuetara ere hurbiltzen gara. Dena den, esango nuke egitarauan gazteei zuzendutako ekintzak falta direla, astean zehar batez ere”, nabarmendu du. Bere zaletasunarekin lotuta, Erroibidek antolatzen duen 3X3 saskibaloi txapelketan parte ere hartu izan du behin baino gehiagotan.

Alardean ere ateratzen da Saioa Altzaga. Lagunekin gozatzen ditu entseguak eta San Pedro eta San Martzial egunak. “Beti lagunekin ateratzen naiz. Ez dugu konpainia finkorik, aldatu izan dugu”, azaldu du. Aurten laguna dute Maider Resende Bidasoako kantinera. Beraz, harekin aterako dira. San Martzial eguneko momentu bereziak aukeratzerakoan, ohiko erantzunak eman ditu: “Arrankada, hasiera delako, lehen momentua. Amaieran Kale Nagusitik jaistea ere polita da”.

# San Juan gaua, sinesmenak eta atsotitzak

Donibane edo San Juan ekainaren 24an ospatzen da, udako solztiziotik (ekainaren 21ean, normalean) gertu. San Juan bezperako gauean erritual franko ospatzen ditugu Euskal Herrian. Etxeetako ate eta leihoetan lizar edo elorrizuri adaxka ezartzen da, eguzki berriak etxe horretan bizi direnak bedeinka eta babes ditzan. Herrietako plaza nagusietan lizar edo haritz handi bat jartzen da eta herriko dantzariek dantza erritualak egiten dituzte zuhaitzaren inguruan. Askotan lizar horietatik zintzilik San Juan gereziak ipintzen dituzte.

**San Juan gauaren inguruko sinesmenak**

Herri, auzo, baserri guztietan sua pizten da. Suak eguzki berria omentzen du eta gizakion bekatuak garbitzen. Zenbait herritan patatak erretzen dituzte San Juan gaueko suan eta gero bertara hurbildu direnen artean banatzen dituzte denek jan ditzaten. Lehen, eta duela oso gutxi arte, oroitzapen txarrak ekartzen zituzten arropak edota objektuak surtara botatzen zituzten, eguzki berriak zorte hobea ekarriko zielakoan.

Suaren inguruko dantzak edota gazteek gainetik egiten dituzten jauziak ere ohikoak izaten dira.

Gau magiko horren inguruan hamaika sinesmen daude gure geografiaren luzezabalean. Ikus ditzagun horietako batzuk:

- Eguzkiak ekainaren 24ko egunsentia argitzen duenean, iturriek eta errekek jendea sendatzeko eta indartzeko ahalmena dute. Hori dela eta, jende askok egunsentian ura jaso eta etxera eramaten dute familia eta aziendak bedeinkatzeko.

- Berdintsu balio du egunsenti horretan zelai eta larreak bustitzen dituen ihintzak. Hori dela eta, jendea oinutsik ibiltzen da ordu horietan, edota abereak ateratzen dituzte, urte guztirako indar daitezen. Esaten dutenez, lehen baziren biluzik ihintzetan iraulka ibiltzen zirenak.

- Itsasoan biluzik, bizkarra emanez eta ilargiari begira sartzen denak gauza handiak egiteko aukera izanen du.

- Pikondo baten azpian musika-tresna batekin jartzen denak berehala ikasiko du tresna hori jotzen.

- Ekainaren 24a hasten delarik, leihotik begiratzen duten ezkongaiek euren bizitzako maitasuna nolakoa izanen den ezagutuko dute.

- Zerbait ahaztu nahi badugu edo pertsona gaizto baten itzala guregandik urrundu nahi badugu, paper batean idatzi eta gaueko surtara bota. Papera surtara botatzean honelakoak esaten dira: “To zan, zaharra eraman zan eta berria ekar zan!” edo “Txarrak eraman eta onak ekarri!”

- Emakume batek, biluzik eta bizkarra emanik, ispilura begiratzen badu kandela baten argipean, bere heriotzaren momentua ikusi ahal izanen du.

- Ekainaren 24an goiz jaikitzen denak ez du logurarik izanen urte osoan.

Bukatu aurretik, bihotzez eskertu nahi dut Joseba Mintegik Lazkaotik igorri didan material baliosa. Milesker zuri.

**Joseba Aurkenerena**

## San Juan gauaren inguruko atsotitzak

Euskaldunon artean horren garrantzi handikoa den egunak atsotitz edo erran zahar ainitz ekarri ditu. Ikus ditzagun horietako batzuk:

- Donianeko euria gariaren galgarria.
- Egunik luzeena San Juanena, gaurik luzeena Santa Luziarena.
- Eguzkiak San Joanetan dantza.
- Gaur da San Juan, bihar juan zan.
- Gaur dala, bihar dala, Doniane etzi, San Joan biharamune.
- Iduzkia Donianetan zeru goian dantzari.
- Jondane Johanez kükü, Jondane Petiriz mütü.
- Jondoanez belea gorde eta Jondore Petiriz bildotsa.
- Jondone Baladi, gutaz urrikal hadi.
- Jondoni Joaneren euriak ogia itotzen eta arnoa urtzen.
- Jondoni Joaneko euria, ogien galgarria.
- San Joan bezpera, sarna fuera. Ogi eta ardoa etxera. Atso zaharra gangelpera. Neskatxa guztiak txokolate hartzera.
- San Joan eguna goizetik iluna.
- San Joan eguna, argitu orduko iluna.
- San Joan euri gabie, urtea ogi gabie.
- San Joan euritsu, urtea ogitsu.
- San Joan, artoa eta ogia kanpoan.
- San Joan, nekez etorri eta azkar joan.
- San Joan, nik ez daukat besterik gogoan, bi arraultza kolkoan, beste bi gehiago altzoan. Artoak eta gariak gorde, gorde! Sorginak eta aztiak gure artean beude! Sugeak eta apoak erre, erre!
- San Joanek esku batean suba eta bestean uda.
- San Juan egunak ostirala harrapatzen duen urtea urte gaztigatua.
- San Juan eta barikua, saldu idi zurixa eta ekarri artua.
- San Juan goizeko inontzagaz hankak busti ezkero, gatxak kendu.
- San Juan larraka (eguraldi txarra), urte guziko marraka.
- San Juan su, bazter guztiak mamitsu.
- San Juan, biba San Juan! Artuek eta garixek gora!
- San Juan, jan-edanak juan.
- San Juan, zelan etorria, halan juan.
- San Juanetako artoak behar du belea tapatu.
- San Juanetako euriak kentan dei ogi eta ez dei emoiten ardau.
- San Juanetako euriak, ez ardo, ez ogi, ez haragi.
- San Juanetan euri garoa.
- San Juanetan festak, alaitzeko mutil eta neskak.
- San Juanetan kuku, San Pedrotan mutu.
- San Juanetan sagartzeari hiru ale ikusten bazaizkio, urte horretan nahiko sagar.
- Sua Gabonetan txapan, San Juanetan plazan.
- Udara, San Juanetatik San Pedroetara.

# Plaiaundi Institutuak profesional eta pertsona onak formatzea du helburu

Plaiaundi Institutua batxilergoa eta goi zein erdi mailako heziketa zikloak eskaintzen ditu, azken hauek zerbitzuen alorrekoak izaki. Formazio DUALA eta telematikoa ere aukeran daude.

Batxilergoa eta erdi zein goi mailako Lanbide Heziketa eskaintzen dugun institutua gara, formazio integral, aurreratzaile eta berrizalekoa.

Gure helburua pertsona ekintzaileak eta lehiakorrak formatzea da. Izan ere, Bidasoa eskualdeari, eta gizarteari oro har, partaidetzaz elkarrekin gustura lan egiteko aukera eskaintzen dion hezkuntza sustatzen dugu. Hartara, hezkidetza, orientabide pertsonal eta profesionalak eta metodologia aktiboak darabiltzagu bitarteko; hots, "pertsonaren garapen integrala" delakoa bilatzen dugu.

Zentroak eskaintzen dituen erdi eta goi mailako formazio-zikloak zerbitzuen alorrekoak dira, Administrazioa dela, Garraioa dela, Nazioarteko Merkataritza dela, Informatika dela, eta, jakina, Osasuna dela: Erizaintzako Laguntza, Laborategia, Dietetika, bai eta "Komunitaterako Zerbitzuak" ere; hau da, Haur Hezitako eta Menekoak Artatzeko zikloak.

## EKIPAMENDU TEKNOLOGIKOA

Ikasgela guztietan ordenagailu eta proiektore bana daude, Komunikazioaren eta Informazioaren Teknologien erabilera bultzatzeko. Gainera, zentroak telekomunikazio sare berria dauka. Honek ahalbidetu du idazmahai birtuala deritzon tresnaz horniturik dauden bi gela berri apailatzea.
Teknologia berriak zentroaren hainbat kudeaketa-plangintzarako ere baliatzen dira.

**Formazio DUALA eta telematikoa**

Deialdi-baimenak direla eta, hezkuntza-eskaintza hau zabaldu egiten da, "Eskaintza Partzial" delakoen bitartez: zikloak osatzen dituzten modulu zenbait eskainita, bai eta Formazio "DUAL" eta Formazio Telematikoa (on line) delakoak eskainita ere; besteetan, Hobetuz - Lanbide ikastaroak ere ematen dira.

Esan beharra dago guztietan Informazio eta Komunikazio Teknologia Berriak erabiltzen direla, ikasgela guztietan badaudelako euskarri informatikoak, eta "Idazmahai Birtualak" deritzagunak. Hizkuntzak ere albait gehien bultzatzen ditugu, eta Enpresetako Praktiketan parte hartuta Europako programetan ere parte hartzen dugu, Leonardo eta Erasmus deialdiak baliatuta.

"Lan Zentroetan Formazioa" egiteko, erdi eta goi mailako zikloetan derrigorrezkoa izaki, 150 enpresa baino gehiagoren laguntza daukagu, ikasleen formazioa bermatzen digutenak.

## Heldu den ikasturteko berritasuna

Informatikako goi mailako zikloan ikasleek 3 urtetan 2 titulu hauek eskura ditzakete:

- Web Aplikazioen Garapena.
- Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena.

Bigarren atala

# Jeloskor nago! Inbidia dut!

## Nola lagundu gure haurrari anaia-arreba berri baten etorreraren aurrean jelos sentimendua erregulatzen?

Haurren arteko jelos sentimenduak desatseginak badira ere, eta gainera askotan sufrimendua sortzen badute ere, oso normalak dira, baita askotan beharrezkoak ere. Helduentzat, maiz, gatazka iturri direlako mingarri edo pisutsuak dira. Azter dezagun lehenik anaia-arreba jaio berri baten etorreran ematen den jelosia:

**Anaia-arreba berri baten etorrera:** Hasteko, haur bati anaia edo arreba bat izango duela adierazteko modua eta haurrak zer senti dezakeen ikus dezagun. Hona hemen 3 urte dituen Beñaten adibidea:

Gurasoak mintzo: "Beñat, gauza oso garrantzitsu bat esan behar dizugu: arrebatxo bat izan behar duzu! Hasieran txikia izango da, baina gero oso ongi konponduko zarete, izugarri maiteko duzu eta pilo bat jolastuko zara harekin, bai?"

Arrebatxoa jaiotzen da eta haurrak ikusten duena zera da: denek begiratzen duten eta ezer egiten ez duen haur bat. Gurasoekin dago beti eta orain mundu guztiak berari kasu gutxiago egiten dio. Gainera, laguntza behar duenean itxoiteko esaten diote, arrebatxoarekin baitaude. Orain handia dela errepikatzen diote, eta gauzak bere kabuz egiteko agindu!

Nola ez da, bada, Beñat jeloskor sentituko? Eta eskerrak jeloskor sentitzen den; bestela, gurasoak ez liokete batzuetan ia kasurik egingo! Gurasook onartu behar dugu zenbaitetan haur jaio berria dugunean maiz lanak gainditzen gaituela eta zaharrenari denbora gutxiago eskaintzen diogula, berau autonomoagoa baita. Denbora behar izaten dugu jaioberriarekin egoteko, geure babes osoa behar duela sentitzen baitugu. Familia egitura aldatu egiten da eta denok egokitu behar dugu egoera berrira.

Haur zaharrenak arreta guztia izatetik gurasoen denbora partekatzera pasatzen da, eta pentsa guraso bakarreko familietan, guraso bakarra partekatu behar!

Zer hartu behar da kontutan haur jaio berri baten etorreran:

• Haurrari naturaltasunez eta denborarekin adierazi behar zaio anaia edo arreba bat izango duela. Adinaren arabera kontzeptua hobeki ulertzeko ahalmena izango du, baina egoera berriari egokitzeko denbora izatea komeni da. Haurrek komunikazio ez berbala ahozkoa baino hobeki ulertzen dute eta maiz zenbait mezu edo isilalditan egoera ez naturala bilakatzen dute, haurra nahastuz.

• Ipuinak oso lagungarriak izaten dira haur jaio berria zer den ulertzeko. Aprobetxa daiteke bera mundura nola etorri zen kontatzeko edo txikitako argazkiak ikusteko. Izugarri gustuko izante du bera nola jaio zen eta txikia zeneko anekdotak kontatzea; maiz negar egiten zuela, kakak nola egiten zituen, behin pixa egin ziola aitonari…

• Haurrak ez du anaia edo arreba berez maitatuko. Helduok normalean datorren haurrekin desiratzen dugunetik egiten dugu maitasun harremana. Zaintzaileak gara, gure ardura eta babesa behar duenez, berez maitatzen dugu kasu gehienetan. Haurraren kasuan, berriz, poliki-poliki elkar ezagutzen dute eta emeki egiten da pertsonatxo berri horrekin harremana. Hori ulertu eta onartu behar dugu helduok, eta harreman hori eraikitzen lagundu: jaioberria besotan ipini eta berarekin zein lasai dagoen esan, behatza eskuetan sartu eta nola harrapatzen dion azaldu (ez zaitu utzi nahi!!!!), guraso eta haur jaioberriarekin denok elkar begiratzen eta jolasten aritu, irribarreak bilatuz…

• Haurraren jelos sentimendu eta jarrerak onartu eta ulertu. Demagun haur jaioberriari titia eman behar diogularik zaharrenak ez duela ematea nahi adierazten digula: "Bai, Beñat, badakit jeloskor edo haserre zaudela (bigarren emozio hau ulertzeko ahalmen handiagoa dute); badakit beti nirekin egon nahi duzula, baina orain titia eman behar diot. Badakit ez dela erraza, baina nik berdin maite zaitut, pilo-pilo MAITE ZAITUT! Titia eman ondoren bakarrik zurekin egongo naiz. Zer egin nahi duzu?

• Haurrak jeloskor sentimenduak izaten jarraituko du, baina emeki beste haur batekin bizitzen ikasiko du, anaia edo arreba bat izatearen abantailak bizitzen joango da. Sentimendua onartzen ikasten duen heinean emozioak ongi kudeatzen ikasiko du, bere jarrera aldatuz.

• Haurrarekin bakarkako momentuak bilatzea eta errutinan ezartzea funtsezkoa da. Esate baterako, txikia siestan dagoenean berarekin nahi duenera jolastu, eskolara biak bakarrik oinez lasai joan, gauean ipuina bakarka kontatu eta eguna nola joan zaion galdetu… Gurasoen bizimodua abiadura handikoa da eta maiz ez dugu denbora hartzen gure haur zaharrenarekin egoteko.

Beno, lagunak, haurren arteko jelosiak aztertuko ditugu hurrengoan. Ongi izan!

**Mapi Urresti Ortiz**
Kuttun aholkularitza psikopedagogikoa
kuttun.kuttun@gmail.com

## Toki Alai HH

Arrigain Asesores S.L.

ZERGAK - LAN-KONTUAK - KONTULARITZA - ASEGURUAK

Asesoría Arrigain

Zerbitzuak:

Kudeaketa administratiboak, laboralak,
kontularitzakoak eta zergenak
Ibilgailuen eskualdaketak
Ondarearen transmisioak, dohaintzak, oinordekotzak...

Errenta aitorpenak
Aseguru orokorrak
Eta abar...

San Ramon kalea, 3 atzea, sarbidea Euskal Herria hiribidetik – Irun Telf: 943636080 - 676756975 www.arrigain.es asesoria@arrigain.es

TXISPASEN BIDAIA

Irungo La Salle BHI

# Famosoak Twiter-ean hiltzen dituguneAN

Errespetua duen telebista katerik munduan badago, horixe BBC da, ezbairik gabe. Haatik, berak ere oker egin dezake, eta hain zuzen okerrik egin du aspaldi honetan, oker egin duenez.

Aldiro-aldiro, komunikabide batzuek lehen mailako pertsonalitateen heriotzaren simulakroak egiten dituzte, halako egoera korapilatsuetan kazetariek zuzen eta artez jokatzeko protokoloak landu aldera, egin ere.

Duela gutxi halako bat gertatu zen BBCn, eta egin zen bulegoko langileak aldez aurretik jakinaren gainean egon arren, erredakziotik kanpoko kazetari bati ere iritsi omen zitzaion sasi-informazio hura.

Albiste faltsuak zioenez, Isabel II.a erregina zendu berria zen. Halabeharrez, simulatutako informazioa bat etorri zen erreginak bere ospitalera, errutinazko txekeora, egindako ohiko bisita batekin.

Jakingai horiek begien bistan zituela, kazetariak ez zuen denborarik galdu eta albistearen "txioa" sareratu zuen, eta egin orduko txioa lau haizetara zabaldu zen.

BBCk Txioa segituan ezabatu eta barkamena publikoki eskatu zuen. Alabaina, gero eta maizago gertatzen da Twitter-ean famatuak hil ohi direla. Hona hemen kasu sonatu batzuk; Morgan Freeman aktorea, Bon Jovi kantaria, Benedikto XVI. aita santua, baita Barack Obama bera ere. Beste batzuk, Bill Cosby komikoa esaterako, lau aldiz ere hil da, eta hasia omen dago halako txantxekin pixka bat aspertzen.

Espainian ere gertatu dira sasi-hilak; hala nola, Belen Esteban, David Bisbal, Raphael.

Egia esan, badirudi ez zarela famosoa harik eta Twitter-ek hiltzen zaituen arte...

Zer ondoriozta genezake? Bada, lehenik eta behin, Twitter ez dela irizpiderik behinena ustezko zendu berriaren familiari lore-koroa bidali ez bidali erabakitzeko; ez, behintzat, informazioa aldez aurretik erkatu eta alderatu ez baldin baduzu.

**Pablo Moratinos**
*Marketing Online-ko aholkularia.*
*3yMedia Comunicación Digital*

Irunero

Iruneroko lantaldeak San Martzial jai zoriontsuak opa dizkie irundar guztiei

Gora San Martzial!!!!

## Ekintzak

**- "Irun Hiria" XI. binakako puzzle lehiaketa**

- Noiz? Ekainak 27

-Ordua? 11:00etan

- Izena emateko?
Bidal ezazu posta elektroniko bat santiagoko.deabruak@gmail.com helbidera edo dei ezazu 648 028 590 telefonora.

**- Ume eta gazteentzako jarduerak Aiako Harrian**

- Zer? Abuztuko ostegun goizetan jarduerak izango dira eta jolasak edo mendi irteerak egingo dira.

Norentzat? 2006-2009 urtebitartean jaiotako umeentzat eta 2002-2005 bitartean jaiotako gaztetxoentzat.

Epea? Uztailak 3, plaza guztiak bete arte.

Inskripzioak? 010era deituz edo webaren bidez: www.irun.org

## Gaztelekuko jarduerak uztailean irun.org/igazte

**3:** Bainua putzuetan (Irun)
**8:** Paddle Surfa (Hondarribian)
**10:** Surfa (Hendaian)
**15:** Urpeko igeria (Hondarribian)
**17:** Baztan abentura park
**24:** Bisita Abaddia Gaztelura
**29:** Irteera Zaragozako atrakzio parkera

- 12-25 urte bitarteko gazteei zuzenduta.

**- Izena emateko:** ekainaren 26ra arte gehiagogazteleku@irun.org. Tel: 943 636 826.

## Enplegu eskaintza Osakidetzan

**- Eskaintza guztiak:** ope2014-2015.osakidetza.eus

**-** Administrari Laguntzailea, Erizaina, Erizaintzako Laguntzailea, Fak. Esp. Familiako Medikua LMT, Fak. Esp. Pediatriako Medikua LMT, Fisioterapeuta, Laborategiko Teknikaria, Emagina, Zelaria

Osakidetza

## Hendaiako Hondartzara joateko autobusa

**- Irundik irteerak: 09:00etatik 19:00etara**
**(maiztasuna: 60')**
**- Prezioa: 1,35 euro**
**- Ordutegiak eta geltokiak** irun.org/igazte **n**

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

- Aurrez aurre: Foruen karrikako 2-behea
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

## DISKOFESTA

Asteartea, ekainak 30, DISKO-FESTA
Urdanibia plazan 10:30etatik 2:30etara!!!!

- 2 DJ's (40 principales-eko Olga Grande eta Luis Long Play-ko DJ)
- 3 gogo (2 neska eta mutil 1. 4 agerraldi egingo dituzte).
- Pantaila diskofestako twitter-ekin; gainera, zure mezuak hara bidali ahalko dituzu.

CENTRO KINEESIS
- METODOA: K-STRETCH ®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT
www.kineesis.net www.k-stretch.com
Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

3y MEDIA
zure enpresari internetetik zabaltzen laguntzen diogu
• marketing online
• bideo online
• web orriak
• sare sozialak
• formakuntza
www.3yMedia.net

# JAI EGITARAUA

## EKAINAK 23

**11:30-13:30 / 16:00-20:00** Anakan HAURRENTZAKO ATRAKZIOAK.
**11:30-13:30 / 16:00-20:00** Behobian, HAURRENTZAKO ATRAKZIOAK.
**12:00** Biteri plazan, MENDIBIL VI. PATATA TORTILLA TXAPELKETA.
**19:30** A. Anguera plazatik irtenda, BURUHANDIAK ETA ERRALDOIAK.
**20:45** San Juan plazan AURRESKUA, KEMEN DANTZA TALDEAren eskutik.
**21:30** Jaietako AGUR OFIZIALA Udaletxetik: Juanma Garate txirrindularia.
**21:45** ALKATE jaunak sua piztuko du.
**22:30** Erdialdean, LOS PEROLAS FANFARREa.
**22:30** Urdanibia plazan kontzertua: KULTO KULTIBO.
**23:00** San Juan plazan, "TRUMOIAK" IKUSKIZUNA.
**24:00** Erdialdean, MUSIKA ANIMAZIOA ARTISTAS DEL GREMIO fanfarrearen eskutik.
**24:15** MUSIKA Urdanibia plazan: ESNE BELTZA taldea.

## EKAINAK 24

**11:30-13:30 / 16:00-20:00** Palmera Monteron, HAURRENTZAKO ATRAKZIOAK.
**11:30-13:30 / 16:00-20:00** Katean HAURRENTZAKO ATRAKZIOAK.
**12:30** Trena Jenaro Etxandia plazatik irtengo da Ficoban egingo den adinekoen omenezko bazkarira joateko.
**18:00** Urdanibia plazan BURBUILA ERRALDOIEN FAMILIA JARDUERA. "Pomper" ikuskizuna; ondoren, burbuila erraldoien tailerra.
**20:00** San Juan plazan. ZIRKU EMANALDIA. PASABARRET konpainia.

## EKAINAK 25

**11:30-13:30/16:00-20:00** Eguzkitza eta Belaskoenea ikastetxeetan, HAURRENTZAKO ATRAKZIOAK.
**16:30-21:30** Urdanibia plazan, GAZTEFESTA. Tailerrak, joko kooperatiboak, erakustaldiak, parkour, eta abar.
**20:00** San Juan plazan, KALE ANTZERKIA, BUBBLE CIRCUS taldearen ekitaldia.
**20:00** IAEren lokalean, SAN MARTZIALEKO ARGAZKI TXAPELKETA HERRIKOIAREN sari banaketa.

## EKAINAK 26

**9:30** IBILALDI NEURTUA. Irteera, Luis Mariano Erretirodunen Etxetik.
**11:30-13:30 / 16:00-20:00** Antzaran plazan, HAURRENTZAKO ATRAKZIOAK.
**12:00** 2015eko SAN MARTZIALETAKO "IRUN HIRIA" ERAKUSLEIHO TXAPELKETAKO sarien banaketa.
**18:00** Urdanibia plazan, PAILAZOAK. GARI MONTXO ETA JOSELONTXO PAILAZOEN saioa.
**18:30** Urantzu pilotalekuan, AFIZIONATUEN ESKU PILOTAKO 63. TXAPELKETA.
**19:00** Zabaltza plazan eta Kale Nagusian, MUSIKA ANIMAZIOA, GAUERDI eta PEÑA POTEO fanfarreen eskutik.
**20:00** San Juan plazan, KALE ANTZERKIA.
**22:00** Santiago kaleko Euskal-Jai pilotalekuan, KEMEN DANTZA TALDEA.
**22:00-01:00** Jenaro Etxeandla plazan, FESTAN BLAI ekimena 14-18 urteko

gazteen artean, jaietan euskara sustatzeko helburuarekin, jolasen, oparien, zozketen, photocallen... bidez.

## EKAINAK 27

**9:00-20:00** San Martzial mendian, IRRATIZALEEN ERAKUSTALDIA.
**10:00** FUTBOL-7 ALBERTO GORRIZ XVI. TXAPELKETAKO FINALAK.
**11:00-14:00 / 17:00-20:00** Txanaleta plazan, LORATEGI TRENAREN ZIRKUITU ERAMANGARRIA.
**11:00** Ramuntxo Berri udal trinketan, XX. SAN MARTZIAL TRINKET TXAPELKETAKO finalak.
**11:00** Zabaltza plazan, KIROLA GUZTIENTZAT,
**11:00** Urdanibia plazan, HAMAIKETAKOA, eta ondoren KOADRILEN OLINPIADAKO FINALAK.
**11:30** Stadium Galen, REAL UNIONen MENDEURRENA ospatzeko ekitaldien barruan, BETERANOEN ARTEKO FUTBOL PARTIDOA Real Sociedad, Athletic de Bilbao eta Real Union taldeen artean.
**13:30** Urdanibia plazatik KALEJIRA abiatuko da, KOADRILAK aterako dira PEÑA POTEO txarangak eta DINBI BANDA BATUKADAk lagunduta Ficoba aldera.
**14:15** Ficoban HERRI BAZKARIA; ondoren, Elastikoen txapelketa, eta HAITZAMA musika taldearen eta DJ musika emanaldiak.
**16:30** Erromes plazan, BINAKAKO X. PUZZLE TXAPELKETA.
**18:00** Urdanibia plazatik abiatuta, IGOALDIA SAN MARTZIALERA KORRIKA.
**18:00** Urantzu pilotalekuan, NAZIOARTEKO SAN MARTZIAL HALTEROFILIA TXAPELKETA.
**19:30** Zabaltza plazan eta Kale Nagusian, MUSIKA ANIMAZIOA, IRUNGO ATSEGINA fanfarrearen eskutik.
**20:00** Amaia KZn, Opereta "El cantor de México" antzezlana,
**20:30** KOADRILAK Ficobatik ITZULIKO dira KALEJIRAN, ELEKTRO PATXARANGAk lagunduta.
**22:00-01:00** Jenaro Etxeandia plazan, FESTAN BLAI.
**22:30** Urdanibia plazan, MUSIKA, CALLE BEAT bertako taldearen saioa.
**24:00** Urdanibia plazan, MUSIKATRIBUTO A QUEEN; REMEMBER QUEEN talde italiarraren ekitaldia.
**24:00** Zabaltza plazan eta Kale Nagusian, MUSIKA ANIMAZIOA ZO ZONGO taldearen eskutik
**1:00** Zabaltza plazan eta Kale Nagusian, MUSIKA ANIMAZIOA VHS STREET BAND taldearen eskutik

## EKAINAK 28

**10:00** PIRAGUISMO ETA ARRAUN JARDUNALDIA irtengo da Santiagotarrak Kirol Elkarteko instalazioetatik.
**10:00** Galen, FUTBOL-7 ALBERTO GORRIZ TXAPELKETAKO FINALAK
**11:00** Urantzu pilotalekuan, PALA EGOKITUKO TXAPELKETA.
**12:00** Txingudi Tenis Klubean, PADELEKO XIV. IRUN HIRIA TXAPELKETAren finala.
**18:30** Alberto Anguera plazatik irtengo dira BURUHANDIAK ETA ERRALDOIAK.
**22:00-01:00** Jenaro Etxeandia plazan, FESTAN BLAI.
**22:30** Urdanibia plazan, MUSIKA, LA BONA DEA talde irundarraren saioa
**23:30** Martxoak 8 kalean, CAMP BERBENA. Taldea: CAFÉ IRLANDÉS.
**23:30** San Juan Plazan, THE MUSIC SHOW Orkestraren emanaldia.
**23:30** San Juan plazan MUSIKA. JAMAICA SHOW Orkestraren emanaldia
**24:00** Zabaltza plazan eta Kale Nagusian, MUSIKA ANIMAZIOA CHARLOT DIXIE BAND taldearen eskutik.
**00:15** Santiagoko Bidegorritik, SU ARTIFIZIALAK.
**00:30** FICOBAn LOQUILLOren kontzertua.
**01:00** Zabaltza plazan eta Kale Nagusian, MUSIKA ANIMAZIOA BrinCaDeira taldearen eskutik.

## EKAINAK 29

**8:00** Hainbat auzotan, SAN PEDRO EGUNEKO DIANA, "Irun Hiria" Musika Bandaren eskutik. Txingudiko Dultzaineroek DIANA joko dute.
**9:30** SAN PEDRO SARI NAGUSIA txirrindularitza itzulia.
**10:30** UDALBATZA San Juan plazatik Junkaleko Elizaraino joango da.
**11:00** Meza Nagusia Junkaleko elizan. Eskaintzan "TU ES PETRUS" abestuko da.
**12:00** AURRESKUA dantzatuko du UDALBATZAK.
**12:30** San Juan plazan SAN PEDRO EGUNEKO KONTZERTUA: Hiria Musika Banda.
**21:00** Txanaleta plazatik, KALEJIRA.
**21:30** Erdialdean, LOS TRANQUILOS FANFARREAren irteera.
**22:00** LASTARGIEN EKINTZAREN OROITZAPEN-EKITALDIA Gipuzkoa hiribideko Anbulatoriotik irtenda.

## EKAINAK 30

**11:00** ERROMERIA San Martzialen eta **12:00etan** 1522ko Zin Sekularra beteko du Udalbatzak.**12:30ean,** Meza.
**22:30** DISKOFESTA FICOBAn ABIBArekin.
**23:00** Zabaltza plazan, MARIATXIAK.

## UZTAILAK 1

**8:00** Urdanibia plazan, GANADU LEHIAKETA. **10:00**etan, TRIKITILARIAK eta ondoren BERTSOLARIAK. **12:00**etan, HERRI KIROLAK. **13:00**etan, GANADU LEHIAKETAKO SARI banaketa. **18:00**etan, BIDASOKO DANTZA SOLTEKO TXAPELKETA. Ondoren, ERROMERIA.
**18:00** Urantzu pilotalekuan, ESKU-PILOTA PARTIDA PROFESIONALAK.
**22:00** Erdialdean, LOS PEROLAS eta ELIZATXO FANFARREaren irteera.
**22:45** Santiagoko Bidegorritik, SU ARTIFIZIALAK.
**23:15** Zabaltza plazan: MONOLOGOEN JAIALDIA. QUIQUE MATILLAk eta FERNANDO GARCÍA TORRESek hartuko dute parte.

PLAIAUNDI INSTITUTUA

# Plaiaundi Institututaren eskaintza 2015-2016

## BATXILERGOAK

- Natur eta Teknologia
- Giza eta Gizarte Zientzietakoa

## LANBIDE HEZIKETA

**Erdi Mailako Heziketa Zikloak**

- Mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako arreta
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Administrazio kudeaketa
- Mikroinformatika-sistema eta Sareak

## LANBIDE HEZIKETA

**Goi Mailako Heziketa Zikloak**

- Haur Hezkuntza
- Administrazioa eta Finantzak.
- Dietetika eta Elikadura.
- Laborategi Kliniko eta Biomedikoa.
- Garraioa eta Logistika.
- Nazioarteko Merkataritza
- Web Aplikazioen Garapena.
- Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena.

**Eskaintza partziala eta etengabeko formakuntza.**
**FORMAKUNTZA DUALA**

**HELBIDEA: Plaiaundi z/g. IRUN**
**9:00-13:00 eta 16:00-18:00**
**INFORMAZIOA:**
**943 61 75 47 / 943 61 75 48**

www.plaiaundi.hezkuntza.net plaiaundi@plaiaundi.net

# Alarde Tradizionaleko Kantinerak 2015

Nerea Alegre Etxepare
Danborrada

Kizkitza Gonzalez Munduate
Banda

Paula Amantegui Guezala
Zaldieria

Nekane Franco Urra
Behobia

Maialen Egiazabal Arruabarrena
Bentak

eder
Ileapaindegia,
estetika eta
produktu salmenta
9:30 - 13:00
16:00 - 20:00
Pio XII, 1 IRUN
943 01 37 82
Astelehen goizean, itxita

Rosa Sánchez
Abokatua
Tel 943 632 740
Telekopia: 943 639 793
rosasanchez@despachoprofesional.net

Eskarne Ruiz de Arbulo
Zuzenbidean lizentziatua
Epaitegietako prokuradorea
Tel 943 635 073
Telekopia: 943 622 314
eskarne@eskarneprocuradora.com
Karrika Nagusia, 25, behe. IRUN

Oihana Elosegui Calvo
Meaka

Naroa Etxeberria Muñoa
Bidasoa

Maider Garcia de Alba
San Miguel

Sheila Gonzalez Hernandez
Olaberria

ARGITZE ZENTROA
ESTIMULAZIOA
-Narriadura kognitiboa gelditzea dementzia kasuetan
- Errehabilitazio kognitiboa hainbat kasutan:
iktusa, traumatismoak, tumoreak, anoxia...
- Adinarekin lotutako narriadura tipikoaren prebentzioa
TERAPIAK: Animaliez lagundutako teraplak, barroterapia eta musikoterapia
EKINTZAK: Soinketa, zineforuma, mahai-jokoak, esku-lanak eta abar
PSIKOLOGOEN ELKARGOKIDE
Santiago, 51
IRUN
635 703055
943 051227

ARTALEKU AZKEN PORTU

UDAL KIROLDEGIA POLIDEPORTIVO MUNICIPAL

C.D. NATACION BIDASOA XXI IRUN HONDARRIBIA

# SAN MARTZIAL JAIETAKO ESKAINTZA BEREZIA

## EKAINAREN 22tik 29ra
## DOAKO MATRIKULA ABONUAN
## ADIN GUZTIENTZAT

## UDAKO ESKAINTZA

-DOAKO MATRIKULA UDARAKO ABONUAN 12 ETA 22 URTE BITARTEKO GAZTEENTZAT
-IKASTARO ESKEINTZA ZABALA 4,12€ tik AURRERA
- ZURE ZERBITZURA DAGOEN LANTALDE GAITUA
- 2 IGERILEKU HANDI ETA TXIKI
- 2 SPA
- 2 FITNES ARETO
- 2 CYCLING ARETO
- 6 ARETO KIROL EKINTZA EZBERDINETARAKO
- 2 ERABILERA AINITZEKO PISTA
- 4 SQUASH
- FRONTOIA,TRINKETEA, ESKALADA MURRUA, BULDERRA, SOLARIUM TERRAZA
- FISIOTERAPIA ETA DIETA ZERBITZUAK
- 2 TABERNA - KAFETEGI

# ZURE ZAIN GAUZKAZU!

Judith Espinal Jaramillo
Ama Shantalen

Leire Gonzalez Vila
Anaka

Loiola Zuazu Iñarra
Buenos Amigos

Itziar Gamero Yenes
Uranzu

Lorena Etxepare Tello
Santiago

Maria Chacon Alonso
Lapitze

Ainhoa Iglesias Garbizu
Real Union

Irati San Sebastian Vazquez
Azken Portu

Noelia Matilla Garcia
Belaskoenea

Maria Errazquin Irigoyen
Artilleria

CLINICA DENTAL
Ramón Amantegui Ibargoyen
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
INPLANTEAK ✓ PERIODONTZIA ✓ HORTZ-ESTETIKA
Lope de Irigoyen, 9 - 1. - IRUN - Tel: 943 61 86 34.
www.clinicadentalamantegui.com

MBE
MAIL BOXES ETC.
Gora San Martzial!
BIDALKETAK mundu guztira
DISEINUA eta inprimaketa
ETA ABAR
Pinudi kalea, 6 - IRUN
Tel: 943 667 995
mbe174@mbe.es
www.mbe.es

# Alarde Publikoko Kantinerak 2015

Carla Pavesi Terrazas
Danborrada

Amaia Lopez Errazkin
Banda

Oihana Sampedro Amador
Zalditeria

Ane Balda Arruti
Landetxa

Maider Resende Tejedor
Bidasoa

Uxue Larrukert Sanchez
Olaberria

Maialen Beltran Arretxe
Ama Xantalen

Miriam Finch Fuentes
Lapitze

Maria Sanchez Fernandez
Anaka

Silvia Vesga Diaz
Santiago


EKAR TELEINMOBILIARIA
943 628 333
info@ekarinmobiliaria.com

**Pisua salgai Irun San Juan**
Azalera 60 m², 2 gela, bainugela, egongela, sukaldea, trastelekua, berogailu elektrikoa, hegoalderuntz, eguzkitsua.
Ref: 04297 109.000 €

**Pisua salgai Hendaia**
Azalera 65 m², 2 gela bikoitz, bainugela, komuna, egongela, sukaldea, terraza, trastelekua, berogailu elektrikoa, hegoalderuntz, eguzkitsua eta bista politekin. Aparkalekua barne.
Ref: 03511 175.000 €

**Pisua salgai Irun San Juan**
Azalera 80 m², 3 gela, bainugela, egongela tximiniarekin, sukaldea, balkoia, hegoalderuntz, eguzkitsua eta bista politekin. Zaharbermitua.
Ref: 04333 155.000 €

Itsaso Labari Jorge
Artilleria

# SUPER AMARA

GORA SAN MARTZIAL!!